



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

2.014KO URRIAK 2

OHIKO PLENOA

Bertaratuak:

**ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:**

María Jesus Salsamendi Astiazaran

Jokin Uzkudun Goenaga.
Harkaitz Arruti Eizagirre.
Oihane Arzalluz Beobide.
Iñaki Irulegi Apalantza
Leire Beristain Mendizabal.

Bertaratu gabeak:

Luis Berrondo Lanceta.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Errezilgo Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hamalauko urriaren biko hogeita bat ordu eta hamar minutu izanik, Errezilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**LEHENENGO PUNTUA:
2014KO ABUZTUAREN 7KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

Idazkariak 2014ko abuztuaren 7ko akta onartzen den galdetzen du eta aho batez onartzen da.

**BIGARREN PUNTUA:
ERNIO MENDIAN OROIGARRIEN EZARPENA ARAUTZEN DUEN UDAL
ORDENANTZAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

Gaia gehiago aztertu behar dala eta, puntu hau hurrengo Plenorako uzten da.



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

**HIRUGARREN PUNTUA:
ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.**

1.- Alkateen aukeraketa zuzenari buruz, 2014ko irailaren 11an EHBildu-ren izenean Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereak aurkezturiko mozioak literalki zera dio:

1.- Udal honek Madrilgo gobernutik PP-k Alkatea zuzenean zerrendarik bozkaturiko zerrendaburua izendatzeko burutu nahi duen Lege Aldaketaren jarrera adierazten du. Udal eta herritarren interesen ginetik, PPren alderdi interesei erantzuten dielako. Norabide horretan, Udal honek, interes alderdikoiek sustaturiko Hauteskunde Legearen edozein aldebakarreko aldaketa errefusatzen du.

2.- Udal honek, Euskal Herriko udal eta toki entitateen borondatea errespetatu eta gure egitura instituzionala inposaketa eta murrizketarik gabe, Euskal Herritarren beharren arabera antolatzeko eskubidea aldarrikatu nahi du.

3.- Udal honek, jardueran herritarren partehartzea eta demokrazia zuzenerako tresnak martxan jartzeko konpromisoa hartzen du, udalaren osaketa ezezik udaleko erabaki garrantzitsuenen aurrean ere.

4.- Udal honek, ebazpen honen berri, herritarrei eta Madrilgo Gobernuari emateko erabakia hartzen du.

Bozketa egin eta Batzordearen diktamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Oihane Arzalluz Beobide, Harkaitz Arruti Eizagirre, Iñaki Irulegi Apalantza eta Leire Beristain Mendizabal.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, BILDUren Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereak aurkezturiko mozioa aho batez onartzen da.

2.- KUTXABANK-en inguruan 2014ko irailaren 22an EHBildu-ren izenean Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereak aurkezturiko mozioa hurrengo Plenorako uzten da.

**LAUGARREN PUNTUA:
ORDAINAGIRIEN ONARPENA.**

Ez dago ordainagiririk.



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

**BOSTGARREN PUNTUA:
ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.**

Alkateak azkeneko Plenotik gaurko data arte emandako Dekretuen zerrenda jakinarazten du, hau da, 2014ko uztailaren 28tik (102/2014 Alkatetza Ebazpena) 2014ko irailaren 25era (134/2014 Alkatetza Ebazpena) bitarteko Dekretuak.

**SEIGARREN PUNTUA:
GALDERAK ETA ERREGUAK.**

1.- Alkateak aipatzen du Gobernuaren Ordezkaritza Gipuzkoatik idatzi bat jaso dugula, Pleno Aretoan erregearen erretratua jartzeko eskatuaz.


2.- Alkateak dio Bidania eta Errezilgo eguneko zentruko esleipena martxan dala eta datorren asteko bileran pleguak onartuko direla.

3.- Leire Beristainek galdetzen du Domusako txabola noiz jarri behar duten. Alkateak erantzuten dio momentu honetan ez dagoela dirurik eta Azpeitiako partidari sartu behar dala eta ondoren tramitazioa emango zaiola.

4.- Oihane Arzallusek aipatzen du Arau Subsidiarioak atzeratu egingo direla eta ea urria erdian hasteko moduan garen.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko hogeita bi ordu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut

H: f. Lab



Maia Exebersio